Hainbat elkarte, eskola eta Gobernuz Kanpoko Erakunde desberdinen laguntza beharko dugu haurrekin kultura aniztasuna landu ahal izateko. Erakunde horietako partaideen aldetik kultura desberdinei buruzko informazioa jaso dezakegu. Aldiz, gure partetik espazioa, leku seguru bat eta hezitzaile lez ditugun jakintzak eskaintzeko prest gaude.
Hainbat GKE desberdinekin harremanetan jarriko gara:

| ● *Save the childrens* | ● *Karibu* |
|---|---|
| Pobreziako eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden 500 haur inguruei ematen diete arreta, eta hezkuntza-laguntza eta aisialdiko eta denbora libreko jarduerak ematen dizkiete. Beraien programak eta haurren eskubideen defentsa bultzatzen dute. | Hainbat ekintza ezberdin antolatzen dituzte, zehazki, Afrikako ohiturak, janariak, dantzak… kontutan izanda. |

2 elkarte hauekin mantenduko dugun harremana estua eta gardena izango da. Ekintzak partekatuko ditugu, hau da, haien formakuntza eta kultura desberdinei buruz dakiten informazioari esker, ekintzak partekatzeko aukera izango dugu. Beraz, esan dezakegu guk haurrei dakigun guztia partekatu dezakegula eta horren truke, elkarteek kultura desberdinei buruzko informazioa eskainiko digutela.

Eskolak:

| **ATXONDO HERRI ESKOLA** | |
|---|---|
| NON | Atxondo (Apatamonasterio)<br>- Foruen enparantza 7, 48291 Atxondo |
| ADIN TARTEA | - HH eta LH (0-12) |
| NORTZUK DIRA? | - Eskola publiko eta inklusiboa<br>- Euskalduna<br>- Adin aniztasuna<br>- Berritzailea<br>- Naturarekin konprometituak |

| ZABALARRA | |
|---|---|
| NON | Durango (Sanrokebide kalea)<br>- Sanrokebide,4. 48200 Durango |
| ADIN TARTEA | - HH eta LH (0-12) |
| NORTZUK DIRA | - Eskola publikoa<br>- Errespetuan eta asaktasunean oinarrituta<br>- Inklusiboa |

| LANDAKO ESKOLA PUBLIKOA | |
|---|---|
| NON | Durango, Bizkaia |
| ADIN TARTEA | - HH eta LH (2-12) |
| NORTZUK DIRA? | - Eskola publikoa<br>- Anitza<br>- Inklusiboa |

| ARTEAKO ESKOLA PUBLIKOA | |
|---|---|
| NON | Artea (Herriko plaza)<br>- Herriko Plaza, 2A, 48142 Gaztelu-Elexabeitia |
| ADIN TARTEA | - HH soilik |
| NORTZUK DIRA | - Eskola publikoa<br>- Anitza |

Eskola hauekin harreman zuzena izango dugu, hau da, gurasoen batzarretara (GE) joango gara Kultutekari buruz hitz egitego… Eskola hauek aniztasunean, inklusibitatean, errespetuan eta askatasunean oinarrituta daudela ikusita, gure kultutekan parte hartzeko prest dauden familia asko han aurkituko ditugula uste dugu.